

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Sexuaz gogor rockeatzeko nahia

Donostiako Discípulos de Dionisos eta Txorlitohead taldeek entsegu lokal bera dute, eta punk-rocka dute gustuko biek. Sexua oinarri hartuta –Discípulosekin ezinbestekoa da– hiru- na kantuko lana egitea proposatu zieten Txorlitohead dionisoarrei; eta Música Autónoma eta Boring Old Fartek binilozko *picture disc* dotorean batu dituzte biak. Beteranoenak, Discípulosek, ohituta gaituzten baino kantu lasaigoak idatzi dituzte: punk-rocka, rock-and-rolla eta melodia, gitarra garbiekin borobilduta; Vincent Von Reverb-en glam kutsua daukan *Tú sabes moverte bien* kantuarekin ausartu dira gainera. Txorlitohead taldekoek, berriz, Lemmy miresten dute, eta punk-rock eta hard-rock makarra batzen diren bidegu- rutzean daude, oso gitarra indartsuekin tinko. Hala, sahiestezi- na da Señor No taldeko Xabi Garre gogora ekartzea.



Sírvase muy frío,
sírvase muy caliente

Discípulos de Dionisos.
Txorlitohead

MÚSICA AUTÓNOMA
BORING OLD FART

Iraupena: 19'00"
14 euro

DISCÍPULOS DE DIONISOS

«Gu ikusten hamar lagun egon arren, dena ematen dugu beti»

Denbora batez isil antzean egon zarete, eta Euskal Herrian behintzat gutxiago jo duzue.

Taldea sortu genuenetik ez diogu inoiz jotzeari utzi, baina egia da aspaldian Euskal Herritik kanpo asko ibili garela. Dena dela, ez daukagu astebururo eta edozein lekutan jotzeko ohiturarik. Horrez gain, azken aldian lau- garren diskoko kantuak idazten ibili gara, eta apirilean sartuko gara estudioan.

Zuekin sexua eta rock-and-rolla ziurtatuta daude. Zer da ikusleei eman nahi diezuena?

Rock-and-rolla %50ean da musika eta %50ean ikuski- zuna. Hori oso argi daukagu. Saiatzen gara zuzenean oso

gogor aritzen, eta zirikatzen. Ikusleak ez daitezela hotz gelditu. Hamar lagun egon arren, guztia ematen dugu beti. **Mitoxa da rock-and-roll taldeetako musikariek, are gehiago zuek, asko ligatzen dutela?**

Ni ahalegintzen naiz nire bizitza eta taldea bereiz- ten, baina egia da gure kasuan behintzat aukera asko izaten ditugula.

Kantu hauek orain artekoek baino abiadura txikiagoa dute; eta hitzak ere samurragoak dira. Aldatzen ari zarete?

Egia esanda, kantu hauek lau bat urte dituzte. Hiruga- rren diskotik kanpo gelditu ziren, eta bereiztutako single batean kaleratzeko ideia geneukan, ez direlako taldearen betiko patroikoak. Hala ere, lasai, hurrengo diskoan ere itzelezko abiadura jotako kantuak egongo dira.

Diskoa oso garbi entzuten da, baina zuzenean nahiko soinu zikin eta gordina izaten duzue...

Bai, egia da. Zuzenekoetan garrantzi handiagoa ema- ten diogu ahalik eta indartsuen eta azkarren jotzeari, horrek soinua kaltetu dezakeen arren.

Hitz hauetan sexua barra-barra dago, baina ez dira hain esplizituak, erromantikoagoak dira. Bizipenak dira, fan- tasiak?

Beno. Donostiako Burdinezko zubiko txaperoak, putetxeak eta musak ditugu berbagai. Denetik dago: bizi izandakoak, fantasiak eta zinema porno zein klasikotik hartutako gauzak.

